

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
35/2008	R7/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

R 7/2011 ebazpena

35/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko martxoaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Estatuko Administrazioak Arabako Foru Aldundiaren kontra aurkeztu duen auziaren gainean, hau da, administrazio horietan lehenengoak bigarrenari ENTIDAD, S.A. sozietateak (IFK:) Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotan egindako kenkari jakin batzuen zati bat itzul diezaion eskatu diola-eta sortu den auziaren gainean. Izan ere, Arbitraje Batzordean izapidetu da auzi hori, 35/2008 zenbakiko espedientean.

I.- AURREKARIAK

1. Auzia Zerga Administrazioko Estatuko Agentziako (AEAT) zuzendari nagusiak aurkeztu zuen, 2008ko maiatzaren 26ko idazkiaren bidez, eta 2008ko maiatzaren 27an sartu zen Arbitraje Batzorde honen sarrera-erregistroan.
2. 2011ko martxoaren 18an, Arabako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendariak alegazio bakarra zuen idazkia bidali zion Arbitraje Batzordeari, eta honakoa adierazi zen bertan:

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptu
35/2008	R7/2011	28/03/2011	Estatuko Administrazioa	Arabako Foru Aldundia	Administrazio demandatuak amore ematea

“Bakarra.- Amore emango da 35/2008 gatazkan. Gatazka hori Estatuko Administrazioak ipini zuen Arabako Foru Aldundiaren kontra, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 65. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusita dagoen Arbitraje Batzordean.

Gatazka honek 10/2008 arbitraje-gatazkaren izatezko eta zuzenbidezko elementu berberak aipatzen ditu, baina beste zerga-aldi batzuei dagokienez. Gatazka hori 2009ko apirilaren 3ko 7/2009 Ebazpenaren bitartez ebatzi zuen Arbitraje Batzordeak, eta bertan Estatuko Administrazioaren asmoa onartu zuen, eta arrazoia eman zion Hidrokarburoen gaineko Zergatik 2003ko eta 2004ko ekitaldietako bioerregaiak kentzearen kostua Arabako Foru Ogasunari jasanarazteko asmoari dagokionez.”

3. Azaldutakoa oinarri hartuta, Arabako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendariak honakoa eskatu zion Arbitraje Batzordeari: aurkeztutako idazkia izapidetzeko onartzeko erabaki zezala eta, bidezko izapideak egin ondoren, eskatu den amore ematea onar zezala.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen deialdiak, eraketa, batzarrak, ebazpenak hartzeko modua, funtzionamendu-erregimena eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa beteko da.

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak honakoa dio 91. artikuluen 2. atalean: “Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
35/2008	R7/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek”.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

1. Onartu egingo da Arabako Foru Aldundiak amore ematea ENTIDAD, S.A. sozietateak (IFK:) Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotan egindako kenkari jakin batzuen zati bat itzultzeari dagokionez. Gai hori 35/2008 espediente-zenbakiarekin izapidetu da Arbitraje Batzorde honetan.
2. Jarduerak amaitu eta artxibatzeko aginduko da, bai eta horretarako bidalitako dokumentazio guztia itzultzeko ere.